

BAILE GHIB

Irlandak lurra eta hizkuntza bateratzen zituen
esperimentu historikoa egin zuen 30eko hamarkadan

Meath kon-
derria lur-
jabetzaren
desoreka-
ren adibide
zen, bertan
baitzeuden Irlandako lurrik
oparoenak, eta horien %41en
jabetza populazioaren %5en es-
kuetan zegoen. Beste hainbat
lekutan bezala, Irlandako Lur
Komisioak Meath konderrian
jauntxo bati 1.142 akretako lur-
saila erosi zion eta banatu egin
zuen, 22 akre neurtzen zuten
zatietan.

Lur horren hartzaileen ar-
tean 59 familia zeuden, gaeliko
hiztunak zirenak, Corcaigh,
Dún na nGall, Ciarraí, eta
Maigh Eo konderrietatik etorri-
takoak. Eta familia horiek eu-
ren jatorrizko konderrietan
utzi zituzten lur eremu txikiak
ere banatuak izan ziren, bertan
gelditu ziren biztanleen artean.
Etorritakoek familiaren jato-
rizko lekuak ez zituzten sekula

 **HISTORIA** / Iñaki IRIGOIEN

Esperimentu sozial bat burutu zen Irlandan XX. mende-
ko 30eko hamarkadan. Irlan Gosete Handia (An Gorta
Mor) gertatu zenetik 100 urte igaro gabe, eta 1916ko al-
txamenduaren, independentzia gudaren eta gerra zibila-
ren ostean, Irlanda oraindik ez zen errepublika, eta britai-
niarrek «opari» gisa utzi zieten lur jabetza feudalaren
arazoa konpontzea zen Irlandako Gobernuaren helburua.

ahaztu, eta horren froga da
oraindik ere Baile Bhib hilerria.
Kanposantua jatorrizko konde-
rrien arabera antolatuta dago,
eta ez da arraroa senar-emaz-
teak bananduta lurperatua
ikustea, bakoitza bere “tribua-
rekin”.

Beraien jatorriarekin batera,
beste eredu bati heldu diote ur-
te hauetan guztietan 59 fami-
liek; hizkuntzari. XX. mendera-
ko Meath konderrian aspaldi
galduta zegoen Irlandako gaeli-

koa, eta familia berri guztiak
gaeliko hiztunak ziren. Hori de-
la eta, etorri berriak kanpotar-
tzat hartu zituzten bertakoek.
Eta gaur da eguna hizkuntza bi-
zirik mantentzen dena eremu
txiki horretan, nahiz eta inge-
lesez inguratuta egon.

Irlandako Gobernuaren pla-
na gaeliko hiztunak topatzea
zen, eta nekazaritzan gogor
lan egiteko prest zeuden 59 fa-
milia irlandar aukeratzea, eta
horrela egin zuen. Baina azke-

nean, 60 izan ziren hautatuta-
ko familiak. Beste familia bat
batu zitzaien. Ni Ghallchob-
hair, Ó Meadhra, Mhuintir, Ni
Mháille, Ó Siocfhradha, eta Ir-
landako abizenak zituzten
beste denen artean, Gallastegi-
tarren familia zegoen.

Ez ziren irlandarrak, ezta gae-
liko hiztunak ere, iritsi zire-
nean. Eli Gallastegi “Gudari”,
Margarita Miñaur eta haien
bost seme-alabak ziren; Iker,
Lander, Unai, Argiñe eta Ninbe.
Bost gazteek laster ikasi zuten
gaelikoa. Eta hainbeste integra-
tu zen familia osoa komunita-
tean, non ia 90 urte geroago
oraindik Gallastegi familiaren
oroimenak bizirik dirauen Baile
Ghib komunitatean.

Martxoaren 10ean aurkeztu
zen Baile Ghib komunitatea-
ren historia liburua, eta ohol-



Ezkerrean, liburuaren egilea,
Maureen Shiels,
Gallastegitarrekin,
liburuaren aurkezpenean.
Eskuinean, Shiels umetan,
bere ahizpekin. Alboko
orrialdean, aurkezpeneko
une desberdinak eta Meath
konderria. Iñaki IRIGOIEN



tzan jarrita zeuden 59 familien jatorrizko konderrien banderak, gehi Ikurrina, 60ko hamarkadako familiaren omezez. Keinu bat ere egin zitzaien kartzelan dauden gallastegitarrei (Irantzu, Lexuri eta Orkatz), euskal presoan aldeko ikurrarekin.

Liburuan 60 familien historia kontatzen da banan-banan, gaelikoz eta ingelesez, "Ceann Scribe Baile Ghib/ Destination Gibbstown". "Helmuga Baile Ghib", euskarara ekarrita. Liburuak familia bakoitza noiz eta zein etxera etorri ziren azaltzen du, han sortu ziren familia berriak ahaztu gabe. Etxea eskuz aldatu bazen ere, horren jarraipena egiten du gaur egun bizi direnen artean. Benetan lan harrigarria da eta, ehunka argazkirekin baliatuta, liburuak esperimendu sozialaren azken atala bihurtu da. Baile Ghib Gaeltacht bizirik dago oraindik.

